

Ikasgaiaren izena Kodea. Entrenimendurako gidoia	ECTS kredituak 3. ECTS Derrigorrezkoa
Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena BIGARREN MAILA - SEI HILEKOA	Modalitatea Presentziala
Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea) - Talde lana</p> <p>(Kodea) - Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p>- Kompetentzia espezifikoak:</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko testuak eta irudiak behar bezala ordenatzea eta antolatzea, telebistarako informazio produktuetan</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko teknika narratiboak identifikatzea eta oinarrizko mailan aplikatzea</p> <p>(Kodea)- Telebistako programen eszenaratzea sortzea eta zuzentzea, aurreikusitako lan-egitasmoarekin eta aurrekontuarekin bat etorrita, ikus-entzunezko produktuak lantzeko eta osatzeko teknika narratibo eta teknologiko egokiak erabiliz</p> <p>(Kodea)- Telebistako programetarako eskaletak, testuak eta gidoiak sortzea eta idaztea</p> <p>(Kodea) - Ikus-entzunezko testuak aztertzea, ikus-entzunezko obren analisirako oinarrizko parametroak aintzat hartuta, eta mezu ikonikoak garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta emaitzat harturik</p>	
Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak <p>Ikus-entzunezko lengoaiaren ezaugarri nagusiak identifikatzea eta erabiltzea</p> <p>Ikus-entzunezko teknika narratiboen oinarrizko elementuak identifikatzea eta aplikatzea: espazioa, denbora, erritmoa, soinua eta diegesia</p> <p>Telebistako entrenimendurako programak sortzea eta gidatzea, dagokien narrazio eta teknologia irizpideekin bat etorrita (espazioa, denbora, erritmoa, soinua eta diegesia)</p> <p>Telebistaren komunikazio ezaugarriak identifikatzea</p> <p>Informazioa egoki ordenatzea eta antolatzea, eskaleta idatziz</p> <p>Entrenimendurako gidoiak sortzea, telebistako narrazioari eta teknikari egokituta</p> <p>Testu idatziak eta ikus-entzunezkoak aztertzea, bai telebistako albistegietakoak nahiz entrenimendurako saioetakoak</p>	
Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena Gidoigilearen profilerako beharrezko ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkie ikasgai honek ikasleei.	
Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko gaitasunekin duen harremana <p>MT1. Eskola magistralak</p> <p>MT2. Kasuak aztertzea</p> <p>MT4. Proiektuak</p>	

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP1- Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problemak edo proiektuak, lan kooperatiboa...

JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak

JP3. Eskola praktikoak

JP4. Ahozko azalpenak

JP5. Tailerrak

JP6. Jarraipenerako tutoretzak

JP9. Aurkezpenak

JP11. Landa lana

Ez-presentzialak

JEP1. Ikasketa eta lan autonomoa

JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako konpetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak

EB2- Banakako lanak

EB3- Azalpenak eta aurkezpenak

EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea

Edukien laburpena

- Telebistako entretenimendu generoetara hurbiltzea
- Telebista saioen gidoiak aztertzea
- Proiektuaren ernamuina. Ideien brainstorminga
- Pitchinga edo proiektua saltzea
- Proiektuaren narrazio eskaleta lantzea eta gidioia osatzea